

## **DBUS**

### **“Bizi Donostia!” ARGAZKI Lehiaketa**

Dbusek argazki lehiaketa bat antolatu du uda garairako.

Promozio lehiaketa hau Donostian egingo da Twitter, Facebook eta Instagram plataformen bitartez.

Promozioaren gaineko informazioa eta zabalkundea hainbat komunikabideren bitartez egingo da, esaterako Dbusen web orri ([www.dbus.eus](http://www.dbus.eus)), autobusetako pantaila, Facebook, Twitter, email bidezko komunikazio eta promozio honen enbaxadoreek egindako hainbat ekintzaren bitartez.

#### **ZERBITZU EMAILEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Donostiako Tranbia Konpainia SA

Domeinua: [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus)

IFZ: A20003737

Helbidea: Fernando Sasiain kalea, 7. 20015-Donostia

Telefonoa: +34 943 000 222

Emaila lehiaketaren ondorioetarako: [comunicacion@dbus.eus](mailto:comunicacion@dbus.eus)

#### **LEHIAKETAREN OINARRIAK:**

**1. ANTOLATZAILEA:** DBUS

**LAGUNTZAILEA:** FNAC

#### **2.- GAIA:**

“Bizi Donostia!”. Asmoa da erakustea nola Dbuseko zerbitzuei esker erabiltzeek hiriak udan eskaintzen dien guztiaz ahalik eta gehien gozatu dezaketen.

#### **3.- ARGAZKIEN EZAUGARRIAK:**

Argazkietan baloratu egingo da bai nola egin diren eta beraien originaltasuna, bai haien espontaneotasuna eta egokitasuna; beraz, argazkiak ateratzeko ez da beharrezkoa izango bereizmen handiko kamerarik edo mugikor eta tableta sofistikatuegirik edukitzea. Argazkia deskribatzeko idazten den testuaren eta argazkiaren beraren arteko koherentzia eta harremana ere baloratuko dira. Filtroen erabilerarekin ez da mugarik egongo.

“Bizi Donostia!” izeneko lemak ez du esan nahi argazkietan derrigorrez Dbuseko autobus bat erakutsi behar dela; erakutsi egin behar dute, ahalik eta modu orijinalean eta dibertigarriean, nola mugitzen diren erabiltzaileak hiritik eta nola gozaten duten hiriaz erabiltzaileek udan Dbusi esker.

#### **4.- PARTE HARTZAILEAK:**

Twitter edo Facebook kontu bat eta Instagram aplikazioa ez ezik argazki kamera, argazki kameradun telefono mugikorra, tableta bat edo argazkiak ateratzeko beste edozein gailu duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute.

#### **5.- ARGAZKI KOPURUA:**

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez ere hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu.

#### **6.- LEHIAKETAREN MEKANIKA**

Erabiltzaileek argazkia Instagramera igo beharko dute, argazkiaren oinean “Donostian bizi izandako une berezi hori” deskribatuz, #dbusUDA, *hashtag*-a gehituta eta Twitterren edo Facebooken partekatuta. Lehiaketan parte hartu nahi duten erabiltzaileek Dbusen profila jarraitu beharko dute beraien argazkia partekatzeko erabili duten plataforman (Twitterreko @dbusdonostia profila edo DBUSEko Facebook orria). Ezinbestekoa da argazkia deskribatzeko eta bere esanahia azaltzeko argazkiari oin bat jartzea, bai eta adierazitako *hashtag*-a txertatzea ere.

Argazkia dagokion *hashtag*-arekin eta deskribapenarekin partekatu arren, argazkia igotzeko erabili duten plataforman Dbusen jarraitzaileak ez badira, deskalifikatuta geldituko dira.

#### **7.- NEURRIAK:**

Kontuan izanda posible dela argazkiak etorkizunean egingo diren kanpainetan erabiltzea, argazki kamerek gutxienez 6 Megapixel eduki behar dituzte.

#### **8.- ARGAZKIAK JASOTZEKO EPEA:**

Argazkiak jasotzeko epea 2015eko uztailaren 15etik 2015eko irailaren 15era artekoa izango da, bi egun horiek epearen barne direla.

#### **9.- SARIAK:**

Astero Donostiako uda hoberen erakutsi eta Dbusekin garai horretaz gozatzeko modurik hoberena erakusten duten hiru argazki aukeratuko dira. Aukeratutako 27 argazkiak lehiaketaren finalera pasatuko dira, eta beraien artetik argazki irabazleak hautatuko dira. Irabazleak argazki kamera bat eramango du, Panasonic LUMIX DMC-G5 + 14-42 MM Kamera EVIL Digitala + FL360 kanpo flasha, baita ere sei hilabetez Dbusen bidaiatzeko txartel bat; bigarren irabazleak kamera digital trinko bat eramango du, Sony

DSC-WX80, eta hiru hilabeteko txartela; eta hirugarrenak kamera lomografiko bat, Lomo Fisheye 2 White Knight, eta bi hilabeteko txartela.

Era berean, beste hiru argazki gehiago aukeratuko dira, eta horiei aipamen berezia egingo zaie sari banaketan. Argazki horien egileek hilabete baterako bidai txartel bana eskuratuko dute.

Hiru argazki irabazleek zein aipamen berezia lortzen duten hiru argazkiek FNACeko bazkidearen alta jasoko dute oparitan, bakoitza 15 €-an baloratua.

Finalera heltzen diren argazkiak Dbusen plataforma sozialen irudia izan daitezke, bai eta Dbusek egin ditzakeen kanpainena ere. Autobusetako monitoreetan erakutsiko dira, eta Dbusek presentzia dueneko sare sozialen bitartez hedatuko dira, bai eta Donostiako Udalaren eta Fnac-en plataformetan ere, hala erabakitzen badute.

Parte-hartzaile bakoitzak sari bat baino ezingo du eskuratu.

#### **10.- EPAIMAHAIA:**

Lehiaketaren deia egiten duten erakundeek epaimahaia izendatuko dute. Donostiako Udaleko, Dbuseko et Fnac-eko langileek osatuko dute epaimahaia. Ezin izango da Epaimahaiaren emandako epaiaren aurka egin, eta, berak hala joko balu, sariak eman gabe gelditu daitezke. Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da.

2015eko irailaren 25a izango da irabazle ateratako hiru argazkiak ezagutzera emateko azken eguna. 2015eko irailaren 26an, berriz, sariak banatuko dira Forum Fnac-en, eta, une horretan, aipamen berezia eskuratu duten hiru argazkien berri emango da.

Dbuseko web orrian ez ezik, Twitterren profilean eta Dbusek Facebooken duen orrian ere argitaratuko da epaimahaiaren epaia.

#### **11.- SARI BANAKETA ETA ARGAZKIEN ERABILERA:**

2015eko irailaren 26an sariak banatuko dira irabazleen artean, Fnac-en Forumean.

Argazkiak etorkizuneko kanpainetan erabiliz gero, egileei aurretik jakinaraziko zaie.

#### **12.- LANEN JABEGOA ETA ERREPRODUKZIORAKO ESKUBIDEAK:**

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du lehiatzaileak bere lanen egilea dela ziurtatzen duela eta Antolatzaileei baimena ematen diela bere lanak Dbusen hedapenerako eta sustapenerako edozein bidetatik erreproduzitzeko, kargurik gabe, beti egilearen izena adierazita.

Egilearen erantzukizuna izango da hirugarrenek eskubiderik ez izatea eta irudi eskubideengatik erreklamaziorik ez egotea. Antolaketak ez du inolako erantzukizunik izango lehiaketan parte hartu duten egileek Copyrigtha gaizki erabiltzen badute.

Argazkiak Dbusen eta Donostiako Udalaren jabetzakoak izatera pasatuko dira, eta promozio edo zabalkunde kanpainetan erreproduzitu ahal izango dira irabazi asmorik gabe, beti ere egilearen izena aipatuta.

Parte-hartzaile guztiek hitz ematen dute ez dutela indarrean dagoen legeria edo hirugarrenen eskubideak urratzen duten edukirik argitaratuko (argazkiak, bideoak, abestiak edo konposizio musikalak) ez eta ekintzarik egin ere. Adierazpen horren aurka doan edozein edukik ezin izango du “Bizi Donostia!” lehiaketan parte hartu, eta horretaz aparte egokitu ahal zaion beste edozein lege ekintza aplikatu ahal izango zaio.

### **13.- OHARRAK:**

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek onartzen direla, eta epaimahaiak hartutako erabakiekin ados daudela, apelaezinak izango baitira.

Antolaketaren esku egongo da erregelamendu honetan jasota ez dauden intzidentzien ebazpena.

Parte-hartzaileen datuak indarreko legeriaren arabera tratatuko dira eta Dbusek lehiaketa berrien gaineko informazioa eta argazkiekin lotutako beste edozein jardueraren berri emateko erabili ahal izango du.